

2017an, erditzeak eta egonaldiak % 4,9 eta % 1,4 murriztu ziren, hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetan.

2017. urteko Ospitale Estatistikako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 40 ospitaleko sarea zegoen (16 publiko eta 24 pribatu), eta, horietan, guztira, 7.168 ohe. Hau da, aurreko urtean baino % 0,22 gehiago. Ondorioz, 1.000 biztanleko 3,3 ohe eskaini ziren. Horien artean % 71 sektore publikokoak izan ziren. Ospitale-motari erreparatuz gero, oheen % 73 gaixo akutuen ospitaleetakoak ziren, % 7 egonaldi ertain eta luzekoak, eta % 20 psikiatrikoetakoak.

Gaixo akutuen ospitale publikoen barruan artatutako kanpo-kontsultak % 6 igo ziren 2017. urtean


Gaixo akutuen ospitaleetan, ospitale barruko kanpo-kontsultak laguntza-arloa gehien hazi zuten guneen artera pasa ziren. 2017an, guztira 3.234.893 milioi kontsulta erregistratu ziren ospitale horietan. Ospitale barruko kanpo-kontsulten kopuruan egondako hazkunderik handiena Bizkaian izan zen; zehazki, aurreko urtean baino % 8 gehiago. Bestalde, ikastetxe pribatuetan 546.176 kontsulta artatu ziren guztira, hots, 2016an baino % 2 gehiago.

Era berean, ebakuntza kirurgikoak igo egin ziren 2017. urtean. Aurreko urtearekin alderatuta, hazkundera % 4koa eta % 2koa izan zen sektore publikoan eta pribatuan, hurrenez hurren. Hazkunderik handiena Araban gertatu zen; % 7, zehazki.

Larrialdi-zerbitzuetan 2017an EAEn 1.220.891 pertsona artatu behar izan ziren (aurreko urtean baino ia 10.000 gehiago); horietatik % 77 ospitale publikoetan artatu ziren.


2017an ospitaleetan egindako egonaldi-kopurua 2.019.147koa izan zen, hau da, 2016an baino % 1 baxuagoa. Egonaldien % 73 ospitale publikoetan izan ziren. Gaixo akutuen ospitale publikoetan egindako batez besteko egonaldia 4,6 egunekoa izan zen; bestalde, ospitale pribatuetan 2,8 egunekoa; 2016ko datuen aldean, batez besteko egonaldia % 2 murriztu zen ospitale publikoetan, eta bere, horretan jarraitu zuen pribatuetan.

1. grafikoa. Ospitale barruko kanpo-kontsulten bilakaera gaixo akutuen ospitaleetan, titulartasunaren arabera. EAE 2010-2017



Iturria: Ospitale Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

2. grafikoa. Egonaldien bilakaera gaixo akutuen ospitaleetan, titulartasunaren arabera. EAE 2012-2017




Iturria: Ospitale Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

Erditze-kopurua jaitsi egin da Araban eta Gipuzkoan; zehazki, ia % 7.

2017. urtean zehar, erditze-kopurua guztira murriztu egin zen 2016. urtearen aldean; zehazki, ia % 5. Lurrealde historikoen arabera, hiruretan murriztu zen: ia % 7 Araban eta Gipuzkoan eta % 3 baino zertxobait gehiago Bizkaian. Erditzeen % 85 ospitale publikoetan artatu ziren. Guztira egin ziren 17.300 erditzeetatik ia % 15 izan ziren zesareak. Euskal Autonomia Erkidegoak zesarea-tasa baxuena duten autonomia-erkidegoen artean egoten jarraitu zuen (Espainiako batez bestekoa 2017an ia % 25koa zen).


3. grafikoa. Zesarea-indizearen bilakaera ehun erditzeko, titulartasunaren arabera. EAE, 1995-2017.



Iturria: Ospitale Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

2017an gaixo akutuen ospitaleetan egondako nekropsia-indizea 47koa izan zen hildako 1000 pertsonako; hau da, 2016ko datuen aldean, % 19ko jaitsiera egon zen. Jaitsiera hori ospitale publikoetan eta pribatuetan antzeman zen; lehen horietan, murrizketa % 15ekoa izan zen eta bigarrenetan % 60koa. Ospitaleen kalitatearen oinarritzko adierazle horrek alde nabarmena islatzen du ospitale publikoen eta pribatuen artean.

4. grafikoa. Nekropsia-indizearen bilakaera mila heriotzako, titulartasunaren arabera. EAE, 2000-2017.



Iturria: Ospitale Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

Inbertsioan egondako gastua igo egin zen ospitale publikoetan eta jaitsi pribatuetan

2017. urtean, sektore publikoan egindako inbertsioa % 24 igo zen. Hala ere, sektore pribatuan % 28 murriztu zen. Ospitale-gastua guztira 2.626 milioi eurokoa izan zen. Horietatik 2.568 (% 98) gastu arruntak izan ziren eta 58 (% 2) inbertsioa.

Ospitalearen jarduera EAeko BPGren % 4 izan zen. Biztanleko gastua 1.205 eurokoa izan zen, hau da, aurreko urtean baino % 3 altuagoa.

1. taula. EAeko ospitaleetako zenbateko nagusien bilakaera. 2016-2017.

Jarduera ekonomikoa (Mila Euro)	2016			2017			%lgoera		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
Gastu arruntak	2.494.474	2.157.471	337.003	2.568.160	2.228.042	340.118	3,0	3,3	0,9
Inbertsioa	49.895	41.395	8.500	57.528	51.407	6.121	15,3	24,2	-28,0
Guztizko gastua	2.544.369	2.198.866	345.503	2.625.687	2.279.449	346.239	3,2	3,7	0,2
Guztizko sarrera	2.725.184	2.409.916	315.269	2.929.214	2.614.478	314.736	7,5	8,5	-0,2

2. taula. EAEko ospitaleetako zenbateko nagusien bilakaera. 2016-2017.

		Guztira			Publikoak			Pribatuak		
		Akutuak	Egonaldi ertain-luzeak	Psikiatrikoak	Akutuak	Egonaldi ertain-luzeak	Psikiatrikoak	Akutuak	Egonaldi ertain-luzeak	Psikiatrikoak
Baliabideak										
Oheak	2016	5.50	52	1490	4.165	375	574	985	137	916
	2017	5.218	508	1442	4.223	369	532	995	139	910
	% Igoera	1,3	-0,8	-3,2	1,4	-1,6	-7,3	1,0	1,5	-0,7
Laguntza-jarduera										
Sarrerak	2016	320.643	8.690	2.655	251.228	7.246	1.587	69.415	1.444	1.064
	2017	321.887	8.408	2.639	253.343	7.063	1.618	68.544	1.345	1.021
	% Igoera	0,4	-3,2	-0,5	0,8	-2,5	2,0	-1,3	-6,9	-4,0
Egonaldiak	2016	1372.162	161.046	55.505	1.177.873	113.464	199.023	194.289	47.582	316.482
	2017	1.352.940	160.962	505.245	1.164.601	112.374	187.303	188.339	48.588	317.942
	% Igoera	-1,4	-0,1	-2,0	-1,1	-1,0	-5,9	-3,1	2,1	0,5
Altak	2016	320.330	8.682	2.721	251.140	7.246	1.595	69.190	1.436	1.126
	2017	321.447	8.605	2.801	253.341	7.066	1.634	68.106	1.539	1.167
	% Igoera	0,3	-0,9	2,9	0,9	-2,5	2,4	-1,6	7,2	3,6
Ospitale barneko kanpo-kontsultak	2016	3.078.100	34.282	45.298	2.601.261	12.442	7.322	476.839	2.1840	37.976
	2017	3.234.893	34.696	46.891	2.750.784	12.721	6.799	484.109	2.1975	40.092
	% Igoera	5,1	1,2	3,5	5,7	2,2	-7,1	1,5	0,6	5,6
Larrialdiak	2016	1204.490	6.436	514	936.403	6.436	-	268.087	-	514
	2017	1214.262	6.097	532	940.041	6.097	-	274.221	-	532
	% Igoera	0,8	-5,3	3,5	0,4	-5,3	-	2,3	-	3,5
Ebaketak	2016	306.246	-	-	232.274	-	-	73.972	-	-
	2017	316.808	-	-	241.077	-	-	75.731	-	-
	% Igoera	3,4	-	-	3,8	-	-	2,4	-	-
Erditzeak	2016	18.207	-	-	15.660	-	-	2.547	-	-
	2017	17.300	-	-	14.767	-	-	2.533	-	-
	% Igoera	-5,0	-	-	-5,7	-	-	-0,5	-	-
Jarduera ekonomikoa (Mila Euro)										
Guztizko gastua	2016	2.321.996	70.837	51.536	2.035.066	57.509	106.291	286.930	13.327	45.245
	2017	2.391.639	81.445	52.604	2.103.595	67.474	108.380	288.044	13.971	44.224
	% Igoera	3,0	15,0	0,7	3,4	17,3	2,0	0,4	4,8	-2,3
Gastu arruntak	2016	2.277.900	67.626	148.948	1.997.013	54.367	106.091	280.887	13.259	42.857
	2017	2.347.285	69.691	151.84	2.064.067	55.837	108.338	283.218	13.854	43.046
	% Igoera	3,0	3,1	1,5	3,4	2,7	1,9	0,8	4,5	0,4
Inbertsioa	2016	44.096	3.210	2.588	38.052	3.142	200	6.044	68	2.388
	2017	44.354	11.754	1.420	39.528	11.637	242	4.826	117	1.178
	% Igoera	0,6	266,2	-45,1	3,9	270,4	21,0	-20,2	72,1	-50,7
Adierazleak										
Betetze-indizea (%)	2016	73,0	86,2	94,8	77,5	82,9	95,0	54,0	95,2	94,7
	2017	71,0	86,8	96,0	75,6	83,4	96,5	51,9	95,8	95,7
	% Igoera	-2,7	0,7	1,3	-2,5	0,6	1,6	-3,9	0,6	1,1
Batez besteko egonaldia (egunak)	2016	4,3	18,5	189,5	4,7	15,7	124,8	2,8	33,1	281,1
	2017	4,2	18,7	180,4	4,6	15,9	114,6	2,8	31,6	272,4
	% Igoera	-2,3	1,1	-4,8	-2,1	1,3	-8,2	0,0	-4,5	-3,1
Txandakitze-indizea (paz./ohe)	2016	62,2	17,0	18	60,3	19,3	2,8	70,2	10,5	12
	2017	61,6	16,9	19	60,0	19,1	3,1	68,4	11,1	13
	% Igoera	-1,0	-0,6	5,6	-0,5	-1,0	10,7	-2,6	5,7	8,3
Hilkortasun gordinaren indizea (%)	2016	2,5	26,7	15	2,8	25,8	0,7	13	31,3	2,6
	2017	2,6	27,3	15	2,8	25,8	0,9	17	34,1	2,3
	% Igoera	4,0	2,2	0,0	0,0	0,0	28,6	30,8	8,9	-11,5
Nekropsia-indizea (%)	2016	57,5	-	-	63,8	-	-	6,9	-	-
	2017	46,6	-	-	53,8	-	-	2,6	-	-
	% Igoera	-19,0	-	-	-15,7	-	-	-62,3	-	-
Zesarea-indizea (%)	2016	11,3	-	-	12,6	-	-	24,9	-	-
	2017	11,8	-	-	13,5	-	-	22,3	-	-
	% Igoera	3,5	-	-	7,1	-	-	-10,4	-	-
Larrialdietako presioa (%)	2016	47,0	55,4	7,4	53,7	66,5	-	22,7	-	18,4
	2017	47,1	54,3	8,3	53,5	64,6	0,2	23,5	-	21,2
	% Igoera	0,2	-2,0	12,2	-0,4	-2,9	0,0	3,5	-	15,2
Ospitaleratzeak eragiten dituzten larrialdiak (%)	2016	11,8	68,9	38,1	13,6	68,9	-	5,6	-	38,1
	2017	11,7	68,8	40,6	13,6	68,8	-	5,2	-	40,6
	% Igoera	-0,8	-0,1	6,6	0,0	-0,1	-	-7,1	-	6,6

Ohar metodologikoak:

- 2013. urtetik aurrera, ospitale publikoei buruzko informazioa Osakidetzako erakunde zentralerako informazio-zerbitzuetatik dator. Lehen, informazio hori zuzenean jasotzen zen ospitale bakoitzetik.
- Sektore publikoko jarduera ekonomikoari dagokionez, 2013. urtetik aurrera bi partida sartzen dira, aurreko urteetan kontuan hartu gabeak, amortizazioaren gaineko gastuari buruzkoak (sarreraren kontuan kontrapartida dute) eta Osakidetzako inbertsio estrategikoei buruzkoak.
- 2015. urtetik aurrera, Osakidetzaren Eibarko Ospitale berriaren gaineko inbertsioa sartzen da.
- Giza baliabideei eta baliabide fisikoei, jarduera asistentzialari eta jarduera ekonomikoari buruzko datuak (Ospitale Estatistikan jasoak) Arreta Espezializatuan sartzen dira.
- 2017. urtetik aurrera, Alfredo Espinosa – Urduliz ospitalea (Osakidetza) ere sartzen da estatistikan.
- 2017. urtean, 704 kontuan (Osasun Sistema Nazionalerako erakunde edo organismoekin hitzartuak, Osakidetza) Lehen Mailako Arretako eta Arreta Espezializatuko jarduera sartzen da.